



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

584. zkia.
XIV. urtea
2006ko irailaren 15a



Mexiko eta Elgoibar 4 belaunaldik batuta

UDAL EUSKALTEGIAK

Euskara ikasteko biderik gertukoena, erosoa eta errazena
La manera más fácil, cómoda y cercana de aprender euskara

**etxean bezala
como en casa**

20 urte
47 urte
Ez da inongo
ikasteko erroturik, baina
erroturik, baina
erroturik.



© 2006 Udal Euskaltegiak. Diseinua: Juan Carlos Rivas. Irudiak: Juan Carlos Rivas. Irudiak: Juan Carlos Rivas. Irudiak: Juan Carlos Rivas.

2006/2007 EUSKARA IKASTAROAK

Euskaldunize maila guztiak. Alfabetatzea. EGA. Hizkuntz Eskaldunak.

IRAILPENA
Iraila eta Ekaina

IKASTARO BEREZIAK
Euskara ikasteko irratia eta ikastaroa lan irratian. Minotauri Praktika.
Hizkuntza Eskaldunak (Jarduketa, Administrazioa, Herriak) /
ANSA (Jarduketa) / Euskara (Eskaldunak), Ostalaritza.

AUTOIKASKUNTZA
BOGA (08r line)

IRAILA eta 1. eta 2. mailako azterketak euskaltegian bertan.

16 urteko gorakoentzat.
Gura-eguntzak. Galtze ezazul

MATRIKULALDIA
Irailaren 1etik 27ra



**UDAL
EUSKALTEGIAK**

DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitatea
Nafarroa Enparantza 2 · ELGOIBAR
Tel.: 943 74 27 31
elgol.euskal@udal.gipuzkoa.net
Ordutegia: 9:00-13:00 / 15:30-19:30

matrikula
zabalik

www.udaleuskaltegiak.net

matrikula
abiarta

%10eko



**deskontua
haur arropetan**

**txartel hau
aurkeztean**

Etoz eta ikus!



Emakume, gizon eta haur erropak

Irailak 8tik 22ra



UXUE ALBERDI



IMANOL LARRAÑAGA

ZOZOAK BELEARI...

Iritsi da iraila, Txino. Iritsi dira azterketak, kurtso berriak, lanera doazen autoak, hosto gorriak, begi-zuloak, politikoen diskurtsoak, lanetik datozen autoak, dietak, agendak, aerobica, hizkuntza eskolako matrikulak, e-mailak... Eta e-mail guztien artean, hauxe: "Remedios para el síndrome post-vacacional".

Bidaia-agentzia baten iragarkia zen, baina berdin dio. Asmatu dugu beste gaitasun bat. Kitto. Izena du, beraz, bada. Aurten denok batera hasiko gara lanean: opor-osteko sindromedunak, Down sindromedunak, Stokholm sindromedunak, Peter Pan sindromedunak... Denok joango gara autobus berean, denontzat dago zer edo zer merkatuan. Zatoz eta aukeratu zeurea.

Onena zera da, postontzian aurkitu dudana e-mail horren ostean aldizkari bateko estatistikak irakurri ditudala. Zera zioten: oporretan gora egiten duela dibortzio kopuruak, maiz areagotu egiten dela estresa, seme-alabekin haserreak ugariagoak direla, depresioek gora egiten dutela, antsietate kasuak untxiak bezala ugaltzen direla...

Opor aurreko sindromeak eta opor ostekoak. Zer gertatzen da, Txino? Barre egiten dugu, baina, ez ote dakigu zoriontsu izaten?

Batzuk diote zoriontsu izatea begi bakararekin negar egitea dela... Beno, ni merkatura noa, ea nire neurriko sindromerik topatzen dudana. Bazatoz?

«Ez ote dakigu zoriontsu izaten?»

UXUE

«Zoriontasuna pixkanaka jaso behar da»

IMANOL

Estimaten dizut gonbitea, Uxue, baina gure amak dioen moduan, gauza txarrak berez etortzen dira, norbera bila joan gabe. Egia aitortu behar badizut, ez dut sekula arazorik izan irailan lanera bueltatzeko, baina, martxa honetan, neuk ere sinistu egingo dut Opor Osteko Sindromea benetakoa dela. Sendagile bati entzun nion behin, hedabideetatik aparte bizi direnak besteok baino gutxiago gaixotzen direla. Zailagoa dela ezagutzen ez dugun gaixotasuna harrapatzea. Begiak itxi eta belarriak tapatzea izango da onena osasuntsu egoteko.

Ez dakit zoriontsuak izaten dakigun ala ez, baina zoriontasuna oporren zakuan topatuko dugulakoan baldin bagaude, malo. Ezin dugu urte osoa abuztuko oporren zain eman. Izan ere, abuztuko eguzkiak ezin dio hamaika hilabeteko ilunaldiari argirik eman. Gainera, abuztuko eguzkiak, berotu baino gehiago, erre egiten du kasu askotan. Zoriontasuna, perretxikoak bezala, pixkanaka jaso behar da, han eta hemen bila ibilita. Perretxiko txikienekin ere bete daiteke otarretxo.

Eta batzuek opor osteko sindromea gainetik kendu ezinik dabiltzan bitartean, beste batzuei lanean hasi direnean bueltatu zaie arnasa. Oporrak hartzeko beldurrez egoten den jende asko dago bazterretan, Uxue. Denbora librean lotuta sentitzen den jende gehiegi. Hauentzat denbora ez da urrea.



EZ DAGO ZORIONIK ASKATASUNIK GABE,
EZTA ASKATASUNIK ERE ADORERIK GABE



Pericles

Deba ibaiaren sarraskia

Azken 3 edo 4 urteotan gure herrian errepikatzen den gertaera ikusi dugu aurten ere. Ehunka aingira eta arrain Deba ibaian hilda.

Haserre aurpegiak igartzen ziren abuztuaren hasieran herrian gelditu ginenon artean. Ikusi al duzu ibaia? Askok ginen herriko zubietara hurbildu ginenok eta han entzundako komentarioak ez dira hemen idaztekoak, baina mota guztietako birao eta juramentuak entzuten ziren. Penagarria zen, lotsagarria! Gehienok ez genuen pentsatzen gure ibaiak hainbeste bizitza zeukanik ere!

Gertatutakoa egunkari eta informatiboetan azaldu zen, Diputazioko teknikariek ura aztertu zuten eta isuria Elgoibarren bertan bota omen zen. Pasatu da hilabete bat eta lehen bezala gaude, datorren urtekoaren zain.

Hainbeste ertzain, teknikari eta abarren artean ez al dira gai izan erruduna topatzeko? Edo merkeagoa izaten da multa bat ordaindu, nor den ezkutatu eta hurrengora arte?

Elgoibartarrok eskubidea daukagu ezagutzeko zein den sarraski honen egilea, zein den enpresa eta arduradunaren izen-abizenak. Eta gure udaletxea non dago? Orain dela denbora gutxi herriko etxe guztietan agenda 21aren barruan,

"Iraunkortasunerako tokiko ekintza plana" banatu zen eta proposamen interesgarri askoren artean, ibaia aisialdirako gune gisa bultzatzea zen eta ibaira isurtzen duten enpresen inbentarioa egitea. Sinesgarritasuna lortu nahi badute, zorrotzagoak izan daitezela legea betetzen ez dutenekin!

C. ANSOLA

Jesus Galarraga "Artetxe"

Kaixo aitxitza:

Zer moduz? Ondo egotea espero dut. Oporretan joan zarela esan didate, betiko. Haserretu egin naiz apur bat, nitaz agurtu gabe joan zarelako, abisatu gabe alde egin duzu. Plazako ume guztiek gauza bera galdetzen didate: "noiz dator zure aitxitza Jesus"? Mutututa geratzen naiz, ez dut jakiten zer erantzun.

Ez dakit zer gehiago esan. 2006ko irailaren 11n joan zinen eta dagoeneko, faltan botatzen zaitut. Goraintziak eta besarkada handi bat familiakoen eta lagunen partez. Hainbeste lagun dira, ezin ditudala denak aipatu!

Ah! Ez arduratu gure "zahartxoaz", oso ondo zainduko dugu-eta, zuk egiten zenuen bezalaxe.

Muxu bat eta betirarte. Zaindu zaitetz.

L. A.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gaztelera datorren eskutitz argitaratuko.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez haztu datu hauek jartea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.




barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: 943 74 37 04 • E-posta: barrenpubli@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETATZALEA** Jaione Unanue **KOIBORATZALEAK** Aniton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurutxaga, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Inigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe KE, Urruzuno **INPRIMATEGIA** Gertru **TIRADA** 4.545 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

• **Mintxetako aparkalekuan isunak jartzen dituzte udaltzainek:** "Ulertezina da abuztuan gertatu zitzaidana. Sekulako eguraldia egiten zuen eta Mintxetako igerilekuetara joatea erabaki nuen. Iritsi nintzenean, aparkalekua beteta zegoen, eta beste gidari batzuk egin zuten bezala, espaloi gainean utzi nuen autoa. Isuna jarri zidaten. Badakit autoa gaizki aparkatuta zegoela, baina inori ez zion trabarik egiten. Ez dut udaltzainen jarrera hori ulertzen".



• **Andikano inguruko pasialekua ez dute garbitzen:** "Garbitzailerak ez dira Santa Ana kale bukaerara etorzen, ez dute Andikano inguruko pasialekua garbitzen. Eserlekuak sasiz beteta dade, belarra gero eta gehiago hazten da eta San Juan suak egin zirenetik, inor ez da etorri zikinkeria hori garbitzera. Jarleku bat puskatuta dago aspalditik. Ezin al da berria jarri? Udalak kontutan hartu beharko luke ingurune hau".



TXALOAK

• **Gazte Asanbladako lagunek Madalako zuhaitzak biziberritu zituzten:** "Gune Askatuko Gazteen Eguna ospatu zutenean, Gazte Asanbladako zenbait lagunek Madalako zuhaitzak berpizteko lanak egin zituzten. Sustraiak zementoz beterik zeuzkaten zuhaitzek eta ezin zuten bizi, ezin zuten amasarik hartu eta bizitzeko oinarrizko elementuak falta zitzaizkien. Zuhaitzetako bat erdi ustelduta zegoen dagoeneko. Argazkian ikusten ditugu gazteak naturaren alde lanean. Txalo bat merezi dute".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikoko Saileko buruzagia



Gipuzkoako
Foru Aldundia





Disparate bat

Denbora, edo denbora eza; garrasi, oihu eta kexa; 4 laguntzako motoak, 13rentzako autoak, igarleak daramatzaten autoak, eta beraien kaskoak; izebergak, bai, izebergak: kamioietan; eta gameluak, Troiako zaldiaren jarraitzaileak; proxeneta lore saltzaileak, eta dominoko galtzaileak; taxista hiltzaileak eta suizidak, intsektizidak, beharrezko kaleko kontenedoretan, askotan, pelotan, umeak edozein txokotan; eta amak: emakume bibotodunak, jinetero astunak, eta lagunak; iraultzaren errudunak, bizitzaren jardunak zaildutako asunak, beroak zimelduta errepide bazterrean, kalean, bizarraren atzean, Moncada kuartelean, eta Granman, historiaren izenean, hantxe; Che, malaletxe aurpegiaz, begira, herrira: herria, salsa eritimoaz, bestaldera, gerria mugituz aurrera edo atzera, mezedoren antzera, beraien balekita, sikiera...

...hori eta bertan bilatu behar den esaldi bat gehiago da Kuba, disparate bat, disparate eder bat.

Antton Alberdi

[ZORTZIKO TXIKIAN]



ANDONI TAGUADA

LAGUNAK
DEKORAZIO DENDAKOIA

Egunean zenbat ordu egiten dituzu lo?

Gutxi. Asko jota 6 ordu. Nahikoa da niretzat, ondo moldatzen naiz.

Zein altxor gordeko zenuke koltxoi azpian?

Koltxoi azpia ez da oso toki segurua baliozko gauzak gordetzeko. Ohe azpiko kajoiak agian, erabiliko nituzke.

Ba al dago zurrunkarik ez egiteko burukorik?

Egon badaude, baina ez dute arrakasta handirik izan, jendeak ez du asko sinisten gauza hoietan.

Bizkarreko arazoak dituenari, zein motatako ohea gomendatuko zenioke?

Ohe biskoelastikoa, oso ondo egokitzen da gorputzera.

Zein da lo egiteko posturarik egokia?

Gora begira dela diote, baina hori oso pertsonala da.

Edreoi nordikoa ala izara eta manta klasikoak?

Izara eta mantak, dudarik gabe.

Ondo lo egitea ala ondo jatea da zuretzat garrantzitsuagoa?


Ondo lo egitea. Etxeko altzari garrantzitsuenak ohea eta butaka dira. Eguna nekatuta hastea oso txarra da.

Lo hartu aurretik egiten duzun azkena?

Dokumentalak ikusi, izugarri gustatzen zaizkit.

komikia

Hil da gero...



Kokoe 070

[AKORDATZEN NAIZ]



MANOLO UNZILLA

1924an jaioa

«Zinia»

Oin "Kaja de ahorros" a dagan tokixan, etxia bera zan zinia. Lehengo nagusixak ziran abadiak, apaizak. Eta pelikulak ere, guk ez genduzen ulertzen, baiña nagusixak esaten ziguen: "zer pelikula merke", eta hau eta bestia, (txarrak zirala, alegia).

Baiña gu bertara juaten giñan beti. Sarrera batek 15-20 zentimo balixoko zaban. Ordurako asko zan, eta guk harapatzeko ere asko zan. Pagarik eta holarik ez zagan. Zinian, jende asko. Lehen zaillagua zan herritik kanpora ur-

tetzia. Elgoibarko herrixa izan da urtezko gutxi. En kanbio, eibartarrak-eta asko urten izan dira, Elgoibarrera, eta bestaldera.

Ni, lehenengo aldiz, futbolakin, 16-17 urtekin. Gehixena, Azkoittira. Juaten giñan futbolera, eta gero han erromerixia egoten zan. Han agarrava zan, eta hemen ez. Ez zaben lagatzen parrokuak. Gu orduan pozik juaten giñan. Futbolian egiñ eta gero, dantzan egittera geldittu. Haura zan punturik onena. Dakan juaten giñan gustura.



[GURE BERBAK]

Kausazko egitura badaezpadako batzuk: PORKE, ZEBA ...

Edadeko hiztun oso gutxiren ahotan entzun izan dogu **PORKE** hori; gaztiaguen artian, egixa esan, errezagua da topatzen. Nik neuk ez dot horren biharrik ikusten, eta, berri-berrixa danez, alde batera lagako neuke. Hainbesteko errezekerixara ezin jo-ko dogu, ezta?

Hona, edozien moduz, bildu diitudan adibide bakan batzuk:

- *Esan diot majiña bat bidar andriari: aldrebes etori balira, ume batekiñ geratuko giñan, porke guri kostau zitzakun txikixa, neskia... ikaragarri!*

- *Partidu edarrak asko ikusi dittut, asko. Porke nik frontoera juten darvadaz (soldautatik etori nitzan ezker) urte asko.*

Beste badaezpadako egitura bat gaur egungo gaztien artian entzuten dan bat da: **ZEBA**, azalpenak emateko. **ZEBA**, berez, ez dago gaizki galdetzaile moduan (-*Ze ba?* -*Ha ba!*); baiña azalpenak emateko ez dau balixo.

Txarra da, hortaz, honako esaldi hau euskeraz:

- *Gaur ez nixe kalera, zeba ikasi egin bihar dot.*

Jesus Mari Makazaga

Malape taberna
Orain astegunetan

San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43

Malape Elgoibar 741945

Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

MEXIKOTIK ELGOIBARRERA

LAU BELAUNALDI, BI HERRIALDE, SUSTRAI BAKARRA

Pilar Arregi San Bartolome kaleko 34. zenbakian jaio zen duela 88 urte. Bizitzak, ordea, Elgoibartik urrun eraman zuen; mende erdi baino gehiago darama Mexiko Hirian, munduko hiririk handienean bizitzen. Jaioterriarekiko lotura eta euskara ez ditu baina sekula galdu. Duela 20 urte hasitako ohiturari jarraituz, urtero hiru hilabete pasatzen ditu Elgoibarren. Aurtengoa egonaldi berezia izan da, alaba, iloba eta biloba ekari baititu berarekin, familia bereko emakumeen lau belaunaldi, alegia. Sustraietara egindako bidaia izan da, Maitaneri, sei urteko neskatxari nondik datorren erakutsi nahi zioten.

Bidai hau egiteko bi arrazoi nagusi zeudela azaldu digu Begoña Maldonado, Maitaneren ama eta Pilarren ilobak: "Batetik, lau belaunaldiak elkartu, eta bestetik, gazteena (6 urteko Maitane) zaharrenaren ohitura, kultura eta mundura hurbiltzea. Amona eta birramona nondik datozen jakin, arbasoak non jaio eta nola bizi ziren ezagutu. Maitane eta biok mexikar peto-petoak izan arren, sustraiak Euskal Herrian dauzkagu. Pertsona guztiek ez daukate nondik datozen jakiteko aukerarik, eta aberasgarria dela sinistuta gaude". Ezberdina da Begoña Unanueren kasua eta bereziak dauzkan sentimenduak, "Iparraldean jaioa naiz, Ilbarritzen, Eusko Jaurlaritzaren amaetxe batean. Eta 12 urterekin Mexikora joan aurretik Eibarko Arragueta kalean bizi izan ginen. Hortaz, non arraiokoa naiz ni? Bi pasaporte ditut; mexikarra eta espainiarra, baina munduko hiritar sentitzen naiz". Aurrez Iparraldean egona bazen ere, aurten ezagutu du estrainekoz jaio zeneko lekua "azkenean iritsi naiz jaio nintzen lekura! Une berezia, hunkigarria izan zen. Nolako leku polita pentsatu nuen nirekiko. Bidaia guztia izan da zoragarria: Familiakoekin pasatako uneak, jatorduak, jendea, amaren lagunak... eta Elgoibar gero eta politagoa dagoela ere esan beharra daukagu".

ARRAZOI POLITIKOEGATIK ERBESTERA

1951. urteaz geroztik bizi da Pilar Arregi Mexikoko hiriburuan, "33 urte nituela senarra eta bi alabekin (Begoña eta Marisol) joan behar izan genuen Mexikora ihesi". Arrazoi politikoen lagaz zuten sorlekua, "Senar oso politikoa izan nuen; zer egingo diogu ba? izentxo bat egina zuen eta... 'Desafecto al regimen' izendatu zuten, alegia, Frankoren erregimenaren kontrakoa zela. Edozein unetan atxilotuko zuten beldurrez bizi ginenez, gure nahia- ren aurka, ihesean iritsi ginen Mexikora". Itzasontziz gurutzatu zuten Atlantikoa: "sekula barkuan ibili gabe eta hilabete iraun zuen bidaiak". Hartutako erabakiaz sekula ez da damutu, "bizimodu ona eduki dugu Mexikon. Senarra eibartarra nuen eta Alfán egiten zuen beharra eta Mexikon ere lan berdinean jarraitu zuen, josteko makinekin. Alabek ikasketak atera zituzten, familia handitu... ez daukat kexatzeko motiborik".

Urte batzuk pasa ziren Pilarrek Euskal Herria berriz zapaldu zuenerako "aita hil zenean itzuli nintzen estrainekoz". Gerora, urtero mantendu duen ohitura hasi zuen, "duela 20 urte, artean senarra bizi zela (duela 11 urte zendu zen), urtero 3 hilabete pasatzera etortzen hasi ginen Elgoibarrera. Senarrak nik baino gehiago gozatzen zituen egonaldiok. Eibartarra izanik

Eibar modukorik ez zegoen harentzat, barru-barruan zeraman". Gure artean dagoen bitartean ez ei du aparteko gauzarik egiten, "kalean gora eta behera ibili, ondo jan, lagunekin egon... itzultzen naizenean, ordea, ezaguna dudan emakume batek beste aurpegiak batekin itzultzen naizela esaten dit beti".

MUNDUKO HIRIRIK HANDIENA

Mexiko Hiria munduko hiri handiena da azalera kontutan hartuta eta bigarren populatuena, Tokioren atzetik. 18 milioi biztanle gora bizi dira megahiri honetan. "Madrilen eguerdiko 13:00etan dagoen kaosa (jendea, mugimendua, trafikoa, e.a.) hamar bider biderkatu eta horixe da Mexiko Hiria" kokatu gaitu Begoñak. "Lanera joateko 42 km. egin behar ditut egunero, eta ordu eta erdi behar izaten ditut, gauzak ondo badoaz". Hiriaren erraldoitasuna ulertzen laguntzen duten datuak dira. Elgoibar moduko herritoxo batera etortzea aldatuta handia dela esan beharrik ez dago, "han kalera atera eta nahi dugun lekuetatik ibiltzeko askatasun gutxiago daukagu. Hemen, aldiz, Maitane bakarrik ibil daiteke kalean. Pentsaezina Mexiko Hirian. Askotan galdetzen didate ez ote litzaidakeen beste lekuren batera bizitzera joatea gustatuko, herri edo probintzia hiri txikiago batera. Hirikoa naizela erantzuten diet, ja-



Begoña Unanue, Maitane Ugarte, Pilar Arregi eta Begoña Maldonado, familia bereko lau belaunaldi.

danik bizimodu honetara ohitu naiz. Azken aldian lantoki eta autoak asko kontrolatzen dituzten arren, arazo larriak eduki genituen hiriko airearen kutsadurarekin. Mexiko Hiriko txoritxoak ere hil egiten zirela eta bertako biztanleok, beriz, kontaminazioari aurre egiten ikasi genuen mutanteak ginela ere entzun behar izan dugu" azaldu digu irribarrez Begoñak.

Lehendik ere egonak zeuden arren, Pilarren alaba eta ilobak Euskal Herriaz maiteminduta daude, "berdetasunak, baserriek, itsasoak... denak deitu digu atentzioa. Mexikon ere danetariako paisaiak dauzkagu, baina asko mugitu behar gara hauek ikusteko. Hondartzarik hurbilenera, esaterako, 5 orduko bidaia dago". Solasaldi luzearen ostean agurtu ditugu

lau emakumeak, hurrengo egunean hartzen zuten-eta Mexikora itzuliko zituen hegazkina. Euskal Herria penaturik laga bado ere, Mexikon osatu duen familiak lagunduko dio penak arintzen Pilarri. Gainera, ez zaio asko falta beriz itzultzeko, "datorren urtean ere, osasunak laguntzen badit, hemen izango naiz" esanez agurtu gaitu-eta.

[PROTAGONISTA]



Jesus**Ansoa**

Mausitxa baseriko Jesus Ansoa lehenengo saria jaso zuen joan zen zapatuan, Bergarako San Martin Ferian. 32 gaztagileren artean, eta Ordiziako Feriako irabazleen aurretik, elgoibartarra izan zen onena. Bigarren urtez jarraian irabazi dute mausitxatarrek Bergarako Feriako Gazta Txapelketa.

2005a izan zen Mausitxako gaztaren urtea, zalantzarik gabe. Sari mordoia irabazi zituen, eta Ordizian ere, bera izan zen garaila. Lazkoa errepikatzea ezinezkoa da jada, baina oraindik ere, poztasun handiak batuko dituzte Mausitxako lagunek.

[NOTIZIA]

18/98 epaiketari buruzko hitzaldia izango da hilaren 22an Herriko Antzokian

Mariano Ferrer kazetariak, Jone Goirizelaia abokatuak eta Juan Mari Mendizabal auzipetu elgoibartarrak, 18/98 epaiketari buruzko hitzaldia eskainiko dute hilaren 22an, Herriko Antzokian. Hasier Etxeberria kazetari eta idazle elgoibartarra arituko da moderatzaile lanetan. Iluntzeko 20:30ean hasi eta 22:00etan bukatuko da.

Elgoibarko 18/98+ Lan Taldea

Duela lau hilabete inguru sortu zen Elgoibarko 18/98+ Lan Taldea, epaiketako auzipetuen eskubideen alde, eta batez ere, 18/98 epaiketaren kontra. Hitzaldia Elgoibarko 18/98+ Taldeak antolatu du, beraien ustetan, "prozesu honen inguruan hutsune bat dagoelako, jendeak gauza



asko entzun ditu 18/98 prozesuari buruz, baina askok ez dakite benetan zer den". Pentsakera desberdinak alde batera utzirik, Lan Talde honek herritar guztiak gonbidatu nahi ditu datorren ostiraleko hitzaldira.

[ZENBAKIA]

33

Autopistako peaje inguruan 33 autorentzako kabida izango duen aparkalekua egingo da. Honen helburua, Azkoiti, Azpeiti eta Elgoibarko langileek autok konpartitzea izango da. Tankera honetako bost aparkaleku egingo dira Gipuzkoan eta guztira 372 autorentzako lekua egingo da.

[ARGAZKIA]



Kolore eta arraza desberdinek osatzen dute mundua. Azkenaldian gure herria mundu txiki bat bilakatu da, eta ez dira gutxi hemen topo egin duten koloreak. Azken berrikuntza "Euskal Doner Kebab" jatetxea izan da. Pakistaniar familia batek Turkiako jaki tipikoa sartu du gure herrian. Gauza berriak probatzea gustatzen zaionarentzat toki bikaina, hori bai, hemengo jateko tradizionalaren aldekoentzat, gehiegi, agian. Dena dela, hemen daude. Txinatarrak, indiarak, hegoamerikarrak... nondik etorriko ote dira hurrengoak?

San Bartolome Parrokiaren aurreko aldea berritzeko obrak kritikatu ditu Einbiouk



Elgoibarko Einbiou Herri Plataformak San Bartolome Parrokiaren aurreko aldean hasi diren obrak kritikatu ditu, beraien esanetan "planifikaziorik gabe hasi direlako lurra apurtzen. EAJk 1999an adierazi zuen Alde Zaharra berritzeko Plan Berezia egiteko beharra zegoela, baina zazpi urte beranduago, oraindik ez dago ezer eginda". Bestalde, obra hauek gure herriaren ondare historikoan kalteak eragin ditzaketela uste dute: "eliza aurre honetan aspaldiko etxebizitza eta harresien arrastoak daudela egiaztatzen duten dokumentuak existitzen dira. Honelako la-

nak kontu handiz egin behar direla uste dugu".

Ez da ezer aurkitu

Lurra puskatu ostean baliozko zerba it aurkitu dutenaren zurrumurrua entzun dugu, baina Migel Anjel Mujika Hirigintzako arduradunak esan digunez, "ez da ezer aurkitu. Arkeolan izeneko lantaldearen agindupean ari gara lanean, gai hauetan adituak dira eta beraiek esaten dute non zulatu eta noraino. Alde Zaharrean egiten diren obra guztietan bezala, bete beharreko legedia errespetatu dugu".

San Bartolomeetako argazkiak Udalaren

Elgoibarko Udalak bere webgunean jarri dituen San Bartolome jaietako argazkiak posta elektronikoz jasotzeko aukera eskaini nahi die herritarrei. Guztira, 165 izan dira webgunean jarritako argazkiak, jaiak iraun duten zazpi egunetan zehar ateratakoak. Argazki hauek www.elgoibar.org helbidean ikus daitezke. Udalaren webguneak 7.432 bisita jaso ditu abuztuan eta Udala oso pozik dago herritarren harrerarekin.



[MOTZ-MOTZIAN]

Mihiluzerako partaideak

Euskal Telebista "Mihiluze" saiorko lehiakide bila dabil. Orain arte astean behin ikusgai izan den lehiaketa berrituta itzuliko da urrian. Egunero izango da ikusgai ETB-1en eta bikoitza parte hartu ahal izango da. Izena emateko edo publiko gisa etortzeko 2 modu daude: mihiluze@eitb.com helbidera idatzi edo 943 01 17 80 telefonora deitu.

Zozketak

Ondorengo argazkietan ikus ditzakezue San Antolin eta San Roke jaietako karretilen irabazleak. Ana Rementeria eta Hilaria Larruskain dira, hurrenez hurren. Bestalde, San Lorentzo jaietan zozketatutako txahala Milagros Mendikuteri tokatu zaio.



Hego Euskal Herriko ikasleen %4,4 etorkinak dira.

Zure seme-alaben gelan ikasle etorkinak egoteak kezkatzen al zaitu?

OLGA IRANZO
Informatikaria
34 urte



“Ez, guztiz kontrakoa, oso ondo iruditzen zait. Gure umeak eta kanpoko umeak oso ondo konpontzea gustatuko lit-zaidake. Nik ez dut arazorik ikusten.”

M^{re} KARMEN GOROSABEL
Irakaslea 49 urte



“Ez, alderantziz, beste kultu-retako jendea gure artean egotea aberasgarria dela iru-ditzen zait. Nagusiok ondo bideratzen badugu, ez da kaltegarria izango.”

GEMA IRIBARREN
Irakaslea
37 urte



“Bat ere ez, ez daukat inolako arazorik. Gainera hauxe da datorrena, gero eta gehi-ago datoz eta ohitu egin behar gara, bai beraiek eta baita gu ere.”

NEREA AMILIBIA
Irakaslea
32 urte



“Ez, guztion integrazioa bult-zatu behar dugu, nire ustez osagarria da. Errespetuz jo-katzen badugu behintzat, guztion onerako izango dela uste dut.”

[BAI ala EZ?]

Izan al duzu opor osteko depresiorik?

BAI %21

“Bai. Oporrak berehala pasatu zaizkit, konturatu orduko San Bartolomeetan ginen! Oso ondo pasatu dut uda eta dagoeneko Gabonetan daukat burua.”

EZ %79

“Ez. Aurten, batez ere, moteltasuna igarri dut hasierako lan-egunetan, baina tristurik ez. Hilabetean burua deskonektatuta izan ostean, kosta egin zait berriz ere lanari eritimoa hartzea.”

Datorren asterako... **Urasandi eta Urruzuno inguruetan etxe berriak eraikiko dira. Elgoibarren etxe berri gehiago behar dela iruditzen al zaizu?**

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
Zumaiako Zelai Talasoterapian.
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talasozelai.com

2006-2007 IKASTURTEA HASI DA

1.203 ikasle matrikulatu dira DBHra arteko mailetan

Bukatu dira udako oporrak, eta 2006-2007 ikasturtea martxan da dagoeneko. Aurtengoan, 1.203 ikasle matrikulatu dira DBHra arteko mailetan, iaz baino 26 ikasle gehiago.

Ikasle hauetaz gain, Elgoibar BH Institutuan 5 ikaslez osatutako gela berezi bat dago.

Azken urteotan bezala, matrikulazio kopuruak apur bat gora egin du aurten ere. Elgoibar Ikastola izan da hazkunde handiena izan duena, izan ere, iaz baino 33 ikasle gehiago ditu aurten. Herri Eskolan 23 ume gehiago matrikulatu dira. Pilar Ikastetxean azken urteotan bezalaxe, beheranzko joera mantendu da eta 24 ikasle gutxiago dituzte.

Batxilergoari dagokionez, Elgoibar Ikastolan aurten ez da talderik osatu. BH Institutuan ordea, 222 ikasle izango dira, 116 1. mailan eta 106 bigarregoa.

	Elgoibar Ikastola	Herri Eskola/Institutua	Pilar Ikastetxea
HAUR HEZKUNTZA			
2 urte	57	46	-
3 urte	36	35	-
4 urte	57	38	-
5 urte	48	32	7
1. HEZKUNTZA			
1. maila	50	45	3
2. maila	27	53	3
3. maila	47	33	11
4. maila	49	21	8
5. maila	28	31	17
6. maila	37	27	13
2. HEZKUNTZA			
DBH 1	29	37	19
DBH 2	35	26	18
DBH 3	35	38	20
DBH 4	37	35	15
GUZTIRA	572	497	134

441 ikasle matrikulatu dira Heziketa zikloetan

Aurtengo ikasturtean 441 ikasle matrikulatu dira Heziketa Zikloetan; BH Institutuan 223 ikasle eta IMHn 218.

BH Institutuan Erdi Mailako zikloetan matrikulatu dira ikasle gehienak, 147 hain zuzen ere, eta horien artean Erizantzaren laguntza Osagariak zikloa izan da arrakastatsuen 56 ikaslerekin. Goi Mailakoe-

tan, Automozio zikloa da jendetsuena 58 lagunekin.

IMHko zikloetan beriz, Muntzia izan da arrakastatsuen 97 ikaslerekin. IMHtik diotenez, ikasleen %8a bakarrik dira neskak. Bestalde, enpresen eskaera %25ean igo dela esan digute, baina ikasle kopurua ez omen da handitu.



[IKAS KONTUAK]

Begirale ikastaroa euskaraz

Elgoibarko Udalak, Debabarrenako gainontzeko Udalekin batera, aisialdirako begirale titulua ateratzeko ikastaroa antolatu du euskaraz. Urtitik maitzera bitartean eskainiko dira klaseak, larunbatetan goiz eta arratsaldean. Ikastaro hau egin ahal izateko 18 urte edukitzea eta euskaraz jakitea eskatzen da.

Udalek jarri duten dirulaguntzari esker, matrikularen prezioa 250 eurokoa izango da. Izena emateko epea irailaren 22an bukatuko da.

Interesatuta daudenek ondorengo telefono zenbakietan jaso dezakete informazio gehiago: Gazteria Saila (943741050, goizez), Euskara Saila (943744366, goizez) eta Gazte Informazio Gunea (943741461, arratsaldean).

KIROL GUNE BERRIA

Kilimon kalea eta Ospitala bitartean eraikiko da kirol gunea

Mendaroko Udalak ekainaren 6an egin zuen Osoko Bilkuran, Ospital azpiko txaleten AIU 28 proiektua aldatzea erabaki zen. Honela, hasierako ideia berreskuratu da, eta Kilimon Etorbidetik Mendaroko Ospitalera bitartean dagoen plataforman eraikiko da kirol gunea berria.

Igerilekurik ez

Kirol gune berri honetan igerilekuak egiteko asmoa zeukan Mendaroko Udalak hasiera batean, baina

azkenean igerilekuak eraikitzearen proiektu hori bertan behera gelditu da, izan ere, diru kostu handiegia baitzeukan.

Kirol gune berri honek 22x43 metro izango ditu, 946m² hain zuzen ere. Lurzoru hau behar bezala prestatuko da lehenik, eta ondoren, Udalak daukan aurrekontuaren arabera banatuko da kirol kantxa desberdinetan. Udalaren nahia, saskibaloi, eskubaloi edo tenisa bezalako kirolak praktikatu ahal izateko guneak herritar guztion eskura jartzea da.



Aire Libreko XI. Margo Lehiaketa irailaren 24an

Mendaroko Margo Tailerrak Udalaren laguntzaz antolatuta, Aire Libreko XI. Margo Lehiaketa izango da irailaren 24an. Mendaroko herriari dagoen edozein aspektu marraztu daiteke, teknika eta formato librean. Partehartzaileek goizeko 9:00etatik 10:00etara eman beharko dute izena udaltxean. Lanak eguerdiko 13:00etatik 14:00etara bitartean aurkeztuko dira. Irabazleak 600 euro jasoko ditu, eta hurrengo biek 300 euroko akzesita. Ondoren, partehartzaile guztientzat luntxa izango da.

Ikastaroak

Urtero bezala, Mendaroko Udalak denbora librerako hainbat ikastaro antolatu ditu. Eskulan eta dekorazio ikastaroa urriaren 3an hasiko da. Ikastaro hau asteartetan eskainiko da, arratsaldeko 18:30etik 20:00etara. Bestalde, marrazketa eta pintura ikastaroa urriaren 5ean hasiko da, eta ostegunero eskainiko da, ordu berean. Ikastaro hauek Zelaikua Plazako lokalean eskainiko dira. Interesatuak Udaleko Kultura Sailean eman dezakete izena, edo bestela, 943033282 telefonoan, goizeko 9:00etatik 13:00etara.

153 etxebizitza berri eraikitzea aurrakusten da



Mendaroko Arau Subsidiarioetan aurrakusten denez, 153 etxebizitza berri eraikiko dira. Azpilgoetako Ospas ingurunean 74 etxebizitza egingo dira, 94 garaje eta 60 aparkaleku. Garagartzan berriz, Bidaburu ingurunean 44 etxebizitza, 52 garaje eta 29 aparkaleku egingo dira. Azkenik, Mendarozabal auzoko Irabaneren lursailean 35 etxebizitza, 38 garaje eta 11 aparkaleku egingo dira.



Maialen Olazabal Argentinan

Maialen Olazabal mendararra Argentinan izan da dantzan. Azkoitiko Xirika dantza taldearekin egin dute bidaia, "Hator hona" proiektuaren baitan. Mar de Plata, Buenos Aires eta Necochea hirietako euskal etxeetan aritu dira hemengo dantzak erakutsi eta hainbat dantzaldi eskaintzen. Esperientzia bikaina izan dela kontatu digu Maialenek: "oraindik ere sinistu ezinda gaude".





AMAIA URRA

Ehiztaria

«Bi egunetan 4.300 txori bota genituen Argentinan»

Zanbranako Ehiza Xeha txapelketan hartu du parte Amaia Urrak asteburu honetan, eta handik bueltan, berarekin egon gara. Mendaroko txapelketa irabazi ostean, eskualdekoan hartu du parte, baina gauzak ez zaizkio berak nahi bezain ondo aterata. Dena den, datorren urriaren 8an beste aukera bat izango du Gipuzkoako txapelketan.

Zer moduz moldatu zara Zanbranako txapelketan?

Gaizki, gauzak ez zaizkit ondo aterata. Udan ez gara hemen egon eta txakurra apur bat gizenduta dago. Bero handia egin zuen txapelketa egunean, 36º, eta txakurra ezinean ibili zen. Ez gara ondo moldatu. Hala ere, emakumeen kategorian bakarria nintzen, Gipuzkoako kanporaketarako sailkatu naiz.

Mendaroko txapelketan 5 pieza harrapatu zenituen. Marka oso ona, ezta? Bai, egun ona eduki nuen. 15 pieza askatu zituzten eta bost harrapatu nituen nik. Nesken kategorian bakarria nintzen, baina txapelketa irabaztea sorpresa handia izan zen niretzat.

Urtebete txapelketetan eta dagoeneko, Mendaroko txapelduna?

Bai, oso txakur ona daukat! Gainera, oporetan Argentinan izan gara ehizan eta tiro mordoa botata etorri naiz. Bi egunetan 4.300 tortola hartu genituen hiru lagunen artean. Guretzat marka oso ona da, baina Argentinako errekorra askoz handiagoa da. Ehiza handia dago Argentinan, ehiztarietzako paradisu da. Garai txarrean joan gara, han orain negua baita, baina Argentina ehizarako toki bikaina da. Toki desberdinetako jendearekin egin genuen topo bertan: Txiletarrak, hegoafrikarrak, Chicagoko jendea...

Mutilek nola hartu zuten neska bat euren aurretik ikustea?

Ez dakit, baina ondo hartu zutela uste dut, ez dut arazorik izan. Azken batean, beste partehartzaile bat gehiago naiz. Neska gutxi ibiltzen da ehizan, baina ziur nago probatuko balute, gustatuko litzaiekela.

Nondik datorkizu ehizarako zaletasuna?

Nire aita eta anaiak ehizarako zaletasun handia izan dute betidanik, eta niri ere beraiengandik datorkidala uste dut. Hirurok joaten ginen ehizara. Gero, anaiak utzi egin zuen eta nik aurrera egin nuen. laz hasi nintzen txapelketetan parte hartzen.

Merituaren zenbatekoa dagokio txakurrari?

Dena. Ehiztariaren punteria ere garrantzitsua da, baina txakurrak bilatu behar du txoria. Pieza bilatzen duenean, txakurra gelditu egiten da, eta txakur ona bada behintzat, zuk agindua eman arte itxaroten du txoria ateratzeko. Pieza ateratzen duenean egiten du tiro ehiztariak eta gero, txakurrak pieza ekarri behar du.

Zuk hezi al duzu zure txakurra?

Ez, hezita eta erakutsita oparitu zidaten. Iñaki Atzuitzari erositako txakurra da, berak ehiza txakurrak hazi eta hezi egiten ditu. Hiru urteko pointerra da, Argi du izena. Oso txakur ona eta borrokalaria da. Txakurrak berezko geneak behar ditu.



«Aita eta anaiak piztu zidaten ehizarako zaletasuna»



GAZTIA NAIZ

txApela bURUAN...



LANZAROTE - ESPAINIA

Ane Barrenetxea

Hegazkina hartu eta Lanzarotera egin dugu bidaia gaurkoan, Kanariar Uharteetara. Eguzki epela, hondartza bolkanikoak, paisaia ederrak... oporralditxo bat pasatzeko toki aproposa benetan. Jende askorentzat Lanzaroten dago paradisua. Ane Barrenetxea elgoibartarra daukagu bertan, eta berarekin egon gara. 8 hilabete daromatza bertan. Ederra aldaketa, Elgoibartik Lanzarotera! Zorioneko Uharteak bezala ezagunak dira Kanariar Uharteak. Guagua hartu eta turismo apur bat egingo dugu Anerekin. Ba al zatoz gurekin?

Nolatan joan zinen Lanzarotera?

Duela 3 urte oporretan egon nintzen hemen eta izugarri gustatu zitzaidan. Gainera, lagun bat bertan bizi dela aprobetxatuz, hasiera batean bere etxera etorri nintzen.

Zertan diharduzu Lanzaroten?

Duela gutxira arte egunkari batean aritu naiz kazetari lanetan.

Nolakoa da Lanzarote? Eta bertako bizilagunak, nolakoak dira?

Oso oso polita eta naturala da, lehor-lehorra, eta lava. Hemengo bizilagunak nahiko atzerakoiak, itxiak eta basati xamarrek, baina orokorrean oso atseginak.

Zer egin zitzaizun zailena hasieran?

Kotxeko gidabaimenik gabe etorri nintzen eta hemen guagua delakoak (autobusak) oso gaizki ibiltzen dira. Batekin edo bestearekin moldatzen nintzen irlan zehar mugitzeko. Irla honetan kotxea izatea ezinbestekoa da eta gidabaime-na lortu nuenean askatasun handia irabazi nuen. Bestalde, herri txiki-txiki batean bizi nintenez, lana bilatzeko zailtasunak izan nituen. Dena den, 3. asterako lanean negoen!

Bisitatu joanez gero, zer erakutsiko zeniguke?

Leku turistikoez aparte, txoko polit eta majiko asko daude Lanzaroten. Kontutan hartu behar da Lanzarote biosferaren erreserba dela eta duela 30 urte iritsi zela elektrizitate bertara.

Noiz arte geratzeko asmoa daukazu?

Oraingoz oso oso gustora nago eta ez daukat Elgoibarrera bueltatzeko asmorik. Aspertzen naizenean edo islafofia sartzen zaidanean alde egingo dut hemendik.



merezi duzu

Gabonetan etorri
ARGENTINARA taldean

Buenos Aires, El Calafate, Ushuaia, Mar de Plata...

San Bartolome, 11 **ELGOIBAR** Tel. 943.74.46.56

EROSKI bidaiak
merezi duzu

Datak:
Abenduaren 26tik
2007ko urtarrilaren 9ra

Eskatu informazioa gure bulegoan!

BARREN

jakiTekO...

EUSKAL HERRIKO III. GRAFITI LEHIAKETA



Euskara Elkarteek Topaguneak antolatuta, Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketa izango da bihar, irailak 16, Tolosan. 39 lagunek hartu dute parte guztira, eta 10 finalistak arituko dira bihar euren grafitiak marrazten, Beotibar pilotalekuaren kanpoaldean. Egun osoko egitaraua izango da, eta erakustaldiak, kontzertuak eta tailerrak ez dira faltako bertara gerturatzeko direnentzat.

Euskal Herriko Graffiti Lehiaketa 2004an egin zen lehenengo aldiz Mendaron. Ekimenak izan zuen arrakasta ikusita, 2005ean ere antolatzea erabaki zen, eta bigarren edizioa Getxoko kaleetan egin zen. Aurtengoa, beraz, lehiaketaren hirugarren edizioa da.

ARGAZKI LEHIAKETA BERRIA EGUNKARIAN



Berria Egunkariak argazki lehiaketa jarri du martxan. Paperezko argazkiak, diapositibak edota argazki digitalak bidali daitezke. Egilearen izen-abizen, helbide eta telefonoarekin batera, argazkia non eta noiz egin den adierazi behar da, eta bertan zer ikusten den azaldu behar da. Interesatuek irakurle@berria.info helbidera edo Berria Egunkaria, Martin Ugalde Kultur Parkea, Gudarien Etorbidea z/g, 20.140 Andoiaian helbidera bidali ditzakete argazkiak.

DONOSTIAKO ANTZINAKO LIBURUEN AZOKA

Liburuak irakurtzeko zaletasuna baldin badaukazu, eta Euskal Herriaren historia interesatzen bazaizuz, Donostiako Antzinako Liburuazoka bisitatzea gomendatzen dizugu. Irailaren 1etik 17ra Donostiako Gipuzkoa Plazan aurkituko duzue zure neurrirako

informazio guztia. Goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara izango da Antzinako Liburuazoka. Informazio gehiago lortzeko 943 425557 deitu daiteke (Gipuzkoako liburu saltzaileen gremioa)

Lan dosierrak, bekak, lehiaketak... guzti honen inguruko informazioa

Gazte informazioko panelean aurki dezakezu!

ZINEA

Iazko filmerik esanguratsuenak "Donostiako Zinemaldiaren Inguruan" zikloan

Elgoibarko Udalak eta Ongarri Zine Klubak, elkarlanean antolatutako "Donostiako Zinemaldiaren inguruan" izeneko jardunaldien barruan, 5 filma eskainiko dituzte irailaren 21etik 29ra bitartean. Honako filme hauek ikusi ahal izango ditugu: "El Arco" (irailak 21); "El Aura" (irailak 22, 23 eta 24); "Un Franco, 14 pesetas" (irailak 23, 24 eta 25); "El Taxista Full" (irailak 26 eta 28) eta "Un Verano en Berlin" (irailak 27 eta 29).

Pelikula hauek guztiak iazko Zinemalditik pasatakoak dira. Kim Ki-Duk hegokorearraren "El Arco" filmea, esaterako, Zinemaldiko Zabaltegi Sailetik pasa zen iaz. "El Aura" filmak, berriz, Fabian Belinsky zuzendari argentinarren azken lana ikusteko parada eskainiko digu,

duela gutxi hil baita "Nueve Reinas" film bikainaren zuzendaria. Iaz, sail ofizialean parte hartu zuen "El Aurak". Carlos Iglesias telebistako aktore ezagunak ("Esta noche cruzamos el Mississippi" saioan hainbat pertsonai egiteagatik ezaguna) zur eta lur laga zituen zinezaleak "Un franco, 14 pesetas" filma autobiografikoa zuzentzen egin zuen lanarekin. Espainiar etorkin gisa Suitzian bizitakoak kontatzen ditu bertan. "El Taxista Full" espainiarrak, berriz, Ikuslegoaren Saria eskuratu zuen eta azkenik, "Un verano en Berlin" pelikula Epaimahaiaren Saria Gidoi lan onenari jaso zuen.

Donostiara hurbildu ezin duzuenok, hortaz, aukera aparta duzue etxean bertan goi mailako zineaz gozatzeko.



Zabalik dago euskaltegieta izena emateko epea

Matrikulazio kanpainak irekita daude Udal Euskaltegian zein AEK euskaltegian. 2006-2007 ikasturtean ere eskaintza zabala izango dute Debabeok. Asteaz, 6,8 eta 10 ordutako ikastaroak, maila guztiak, euskalduntzea nahiz alfabetatzea. 1. eta 2. Mailetak azterketa ofizialak ere egingen dira euskaltegian bertan. Interesatuak 943 74 27 31 telefonora deitu dezakete.

AEK euskaltegian, berriz, euskalduntzeko maila guztiak emango dira. Bertan, 1. eta 2. mailako agiriak lortzeko aukera izango dute, azterketak gainditzeko dituztenek. Bestalde, Osakidetza irakaskuntza hizkuntza eskola EGA edo administratzaiozko ikastaroak eta guraso, etorkin, merkatari etab. entzat ikastaro bereziak ere izango dira. Izena emateko 943 74 13 32 telefonora deitu edo Plaza Txikian duen egoitzatik pasa.

Argentinaren eta mexikar mariatxien saioa hilaren 17an



Azken hiru hilabete pasatxotan gure artean izan ostean, iritsi zaie agur esateko unea "Esencia Argentina" folklore argentinarraren taldeari eta "Mexiko Lindo" mariatxiei.

Eta zer hoberik euren errepertorioaren onena erakutsiko duen ikuskizunarekin agur esatea baino. Irailaren 17an,

domekan, eskainiko dute folklore saio bana Plaza Handian. Euskal Herrian, Espainian eta Frantzia zehar egin duten birak iraun duen bitartean Kultur Etxeko sotoa erabili dute entsegu leku gisa eta talde hauen janzkera eta doinuak elgoibartarren bizitzako parte izan dira denbora tarte honetan.

EHIZA XEHE TXAPELKETA

Carlos Condek irabazi zuen Eskualdeko Ehiza Xehe Txapelketa



Bat ez bada besteak. Condetarrek ehizarako berezko trebetasuna duten zantzarik ez dago. Normalean anai zaharrak, Davidek, eraman izan ditu txapelak etxera, baina oraingoa anaia gazteak, Carlosek, irabazi du Eskualdeko Ehiza Xehe Txapelketa. Zanbranako ehiza barrutian jokatu zen txapelketan sei eper bota zituen La Union elkarteak ordezkaririk. Oscar Goikoetxea (4 eper) mendarorra sailkatu zen bigarren postuan eta Iñigo Guisasola eibartarra hiruga-

ren postuan (3 eper eta galeper bat). Junior mailan Adur Juaristi elgoibartarra nagusitu zen. Txakurrak eta eperrak txepeldu zituen beroa izan zen ehiza jardunaldiko protagonista nagusienetako bat. Hau izan daiteke, beharbada ohi baino punteria eskasagoa erakustearren arrazoia, askatutako 42 eperetatik 25 bakarrik ehizatu zituzten-eta parte hartzaileek. Lehen hiru sailkatuek Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko dute urriaren 8an, Zanbranan bertan.

29.000 erabiltzailetik gora pasa dira Mintxetatik domeka honetan amaituko den bainu denboraldian

Irailaren 17an, domekan, amaituko da aurtengo bainu denboraldia Mintxetako Aire Libreko Igerilekuan.

Aurten ere lagun mordoxka igo da Mintxetara beroari ihesi Karakateren magalean eraikitako Mintxetako igerilekuan bainu freskagarria hartzeko asmoz. Patronatutik helarazi dizkiguten datuen arabera, 29.000 erabiltzailetik gora izan dira aurtengo denboraldian. Iaz, 30.000tik gora izan ziren. Abuztuko lehen hamabostaldia izan ezik, igerilekura igotzeko moduko eguraldiak egin izanak asko lagundu du, eta baita inguruko herrietatik (Azkoitia, Eibar, Soraluze...) inguratzen diren erabiltzaileen kopuruak ere. Uztaileko egun batean joan zen lagunik gehien: 1.420.



Bruesa Saskibaloitako taldeko abonatuak Usua tabernan eskuragarri

ACB mailara igo berri den Donostiako Bruesa GBC saskibaloitako taldeak sei ordezkaritza gune ireki ditu Gipuzkoan, eta horietako bat, Debarrenako, hain zuzen ere, Elgoibarko Usua tabernan egongo da. Julian Segundo saskibaloitako zaletu eta Usoko jabeetako baten ekimenez lortu du Elgoibarrek ordezkaritza hau. Hirurogei abonatu jarri dituzte zaletuen eskura eta momentuz, erdiak erreserbatu dituzte. Hasteko, autobus bat jarriko dute Illumben jokatu diren partiduetan ikustera joateko. Abonatzeko interesa edo informazio gehiago nahi izanez gero, Julian Segundorekin kontaktuan jarri (685 728 560).



I. URTEURRENA

2005eko abuztuaren 26an hil zen

Iñaki Beristain Juaristiren

oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, irailak 16, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



JOSEBA ZUBIZARRETA "GALTXA" HAUNDIKO ENTRENATZAILEA

«Jokalarien laguna ez banaiz ezin naiz entrenatzailea izan»



Joseba Zubizarreta "Galtxa" (38 urte) makina bat urtean taldeko zentrala izandako azpeitiarra da aurten Haundiko entrenatzailea. Azken 3 urteak Preferente mailako Zarautz entrenatzen pasa ostean, ilusioz gaitzeka dator bihotzean daraman talde kuttuna entrenatzera.

► Beriz ere etxean "Galtxa"...

Halaxe da. Kostata baina itzuli naiz. Duela 2 urte jaso nuen Haundia entrenatzeko deia estrainekez, baina ezezkoa eman behar, lanarekin kriston arazoak nituen-eta; hiru errelebotan ari nintzen. 3. mailan entrenatzeko prest dauden 500 lagun egon, niri deitu eta ezezkoa eman beharra izugarri gogorra izan zen. Batez ere, Elgoibarri ezezkoa ematea. Denak ezagutzen ditut hemen, andrea ere Elgoibarkoa dut, eta lagun asko egin nituen Mintxetan zein kalean. Hauetako huts egiteko gogorik ez neukan. Gaizki edo ondo ibiliko da taldea nirekin, baina barruan daukadana husteko kondiziotan lan egin nahi nuen. Bestela hobe da etxean geratzea. Zorionez, laneko egoera hobetu eta bigarrenengo jaso dut deia.

► Asko aldatu al dira gauzak?

Aldagelak eta 'Kuki' bakarrik jarraitzen dute bere horretan. Kluba hasi egin da eta instalazioak motz geratu dira. Bestalde, nire garaian 3. mailako aberatsetako bat zen Elgoibar; Preferenteko Madrila. Orain, beriz, kategoriako pobreena edo 3. pobreenetako bat da. Apenas dugu aukerarik fitxaketarik egiteko eta Bizkaia aldeko talde indartsuen aurrekontuekin lehiatzeko.

► Nola egin ahal diezue aurre aurrekontu handiagoa duten taldeei?

Lehenik, besteek baino aukera gehiago sortu beharko ditugu golak sart-

zeko. Aldagela sakratua eta funtsezkoa da. Aldagelan berba asko eta zelaian gutxi da nire lema. Talde pobreetan kirola egiteko ilusio gehiago dagoen ustea naiz. Talde handietan bakoitzak bere buruari begiratzen dio eta tartean dirua nahasten bada, malo. Hantak lurrean eduki, non gauden jakin, eta, denok denontzat lana egin behar dugu, batez ere, egun txarretan. Onetan ez dago inoren beharrik. Une txarretan azalazten da aldagelaren benetako balioa.

► Futbolaria izan den entrenatzaile batek beste ikuspuntu bat al dauka?

Bai, une bakoitzean jokalariek zer sentitzen duen daki eta informazio oso baliagarria da. Jokalariarekin berba asko egitekoa naiz, denekin eta denataz, ez futbolaz bakarrik. Batzuk diote entrenatzaile bat ezin dela jokalarien laguna izan. Ni laguna ez banaiz ezin naiz entrenatzaile izan. Halere, entrenamenduetan entrenatzailea naizela bereizten jakin behar dute. Eta hau errespetatzen ez bada, postura aldatzea beste erremediorik ez dut. Jokalariarekin berba egiten, motibatzen... nire saltsan aurkitzen naiz eta ondo joan zait. Bestalde, ez ditut 5 durotik gorako berbak gustoko. Entrenatzaile batzuk, jokalariek esandakoaz tutik ulertu ez arren, 'Zenbat dakien entrenatzaileak!' pentsarazi nahi dutela sinistuta nago. Nahiago dut motzean, herri hizkeran, gaizka berdina esan.

«3. mailako pobreena edo pobreenetako bat da orain Elgoibar»

2006-2007 DENBORALDIKO HAUNDIREN AURKEZPENA

Hiru fitxaketa berriekin hasi du Haundik denboraldia



Goiko ilaran, ezkeretik hasita: Alex del Rio, Galtxa, Igartua, Kerman Azkarraga, Jon Arruti, Jesus Mari Navarrete, Eneko Kortadi, Mikel Tarragual, Ion Igartua eta Urtzi Amiano. Behean, ezkeretik hasita: Ander (masailaria), David Rodriguez, Iñigo Orue, Iosu Guinea, Oier Iribar, Ander Prieto, Iker Martinez eta Julen Aranburu.


Aurpegi berri gutxi izango ditu aurten Haundik: hiru jokalarik, entrenatzailea eta prestatzaile fisikoa. Agurrei dagokionez, zazpi jokalarik laga dute taldea: Igartua, Etxabe, Arrillaga, Torre, Duñabeitia, Ruiz eta Arrietak.

Galtxaren itzulera da, beharbada, azpimarragarriena. Haundin jokalarik ibilbide arrakastatsua egin ostean, entrenatzaile moduan itzuli da. Laguntzaile gisa iaz futbola laga zuen Joseba Igartua izango du. Hirugarren mailan aurrekontu handiagoa duten taldeen aurka arituko dira lehian. "Urtetik urtera lehiakorragoa

eta zailagoa da kategoria hau" azaldu digu Galtxak. "Talderik indartsuenak Bizkaian daude: Portugalete, Gemika, Zalla, Durango, Amorebieta, Arenas, Santurtzi... aurrekontu handiak mugitzen dituzte, jokalariei diru asko ordaindu eta ezinezkoa da fitxaketen lehian parez-pare sartzea". Gauzak horrela, "salbazioa lortzeko beharrezko puntuak lehenbailehen lortzea" dela lehen helburua azpimarratzen du azpeitiarrak.

Bi zatitan bereizten du osatu duten taldea, "atzealdean borrokarako gogoa daukan jendea eta bi atezain oso onak

dauzkagu, sekula gertatu ez zaidana. Zelai erditik aurrera, berriz, bigunxeagoak, teknikoagoak diren jokalariek ditugu. Erasoan 'Kasta' piska bat falta zaigu eta atzean, berriz, goialdean dagoen hotztasuna, klase hori. Karakterra zaila da irakasten, baina denok batera borroka egiten ikasi behar dugu. Psikologikoki indartsuak izan behar gara. Hortan ikusten dut taldea ahulen. Gol bat edo bi jasotzen baditugu, lur jota geratzen gara. Ez da erraza, baina asko landu beharreko arloa izango da". Momentuz ligako lehen partida irabazi eta bigarrena berdindu dituzte.



Aitzol Manterola
21 urte (AURRELARIA)
Zarautz



Urtzi Amiano
27 urte (ATEZAINA)
Arrasate



Ion Igartua
22 urte (ATZELARIA)
Oñati



Julen Aranburu
23 urte (PRESTATZAILE FISIKOA)
Bergara

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- ▶ Etxea salgai Urasandin. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. **677 77 29 20**

ETXEA SALGAI MENDARON

Mendarozabal Auzoan. 3 logela, sukalde, komuna eta egongela. Dena kanpoaldera. Bizitzera sartzeko prest. **943 03 38 44**
686 62 21 92

ALOKAIRUA

- ▶ Pisu txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **626914904**
- ▶ Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **666032715**
- ▶ Etxea alokatzen da Aita Agirren. 3 logela, berritua. **685728555**
- ▶ Logela bateko etxebizitza alokatzen da erdialdean. **660 042 159**
- ▶ Logela bat alokatzen dut Elgoibarren. **943741881**
- ▶ Ikasleentzako pisua alokatzen dut Gasteizen, erdialdean. **689789743**

[AUTOAK]

- ▶ Renault Traffic SS-X furgoneta salgai. 220.000km. Sukaldea, dutxa, berogailua eta literak. **679 60 92 83 (21:30-22:30)**
- ▶ Ford Escort Atlanta turbo diesel autoa salgai. 90 zaldi, egoera onean. Aukera bikaina. **660363815/943740786**
- ▶ Seat Ibiza 1.9 autoa salgai. 3 ate, zuria. 75 zaldi. 95ekoa. Merke. **943531597 edo 679503380 (Aitor)**

[GARAJE eta LOKALAK]

- ▶ Garajea alokatzen da Trenbide kalean. **943 74 17 14**
- ▶ Garajea alokatzen da Pista Beltzaren azpian. **943748853**
- ▶ Lokal bat hartuko genuke Elgoibarren. **616224238/600009990**
- ▶ Garajea alokatu edo saltzen da Leku Ederren, 4. pisuan. **696 977 528 (Asteburuetan edo gauz deitu)**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Ardiak eta aharia saltzen dira Mendaron. **943 75 51 04 (Migel)**
- ▶ Karabana salgai Bañares kanpingean, Santo Domingo de La Calzadan. (Errioxa). 5 laguntzako. 4.500 euro. Negoziatzeko aukera. **943 74 41 27**

JULENE POLTZOAK

DENA
ERDI PREZIOAN
hilabete
bukaera arte

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Pertsona bat eskaintzen da garbiketa lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko. **626 914904 (Rosa)**
- Ingeles Filologiako klase partikularrak ematen ditut. **626 41 93 54**
- LH eta DBHko klase partikularrak ematen dira. **943 53 10 54**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. **649 36 81 37**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. **679 11 34 46**
- Emakumea lanerako prest: nagusiak zainduz (geriatria erizaintzako titulua), umeak zainduz, garbiketa lanak, dendako kutxazain... **696 13 67 80**
- Neska garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. **639 88 20 04**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest: elkarateak, tabernak, lokalak... **667 709 439**

- Emakumea etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia eta informeak ditut. **620674034/943174134**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. **699 609 190**
- Gizonezkoa edozein lan egiteko prest. **943 53 15 53**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. **680304982 (Candelaria Fernandez)**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Egunez edo gauzez. Orduka ere. Esperientziaduna. **943172896 (Mertxe)**
- Emakume gaztea lanerako prest. **620 571707**
- Emakumea lanerako prest. **943 53 15 53**
- Neska gaztea lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa... **609965932 (Blanca)**
- Emakumea pertsona nagusia edo umeak zaindu, garbiketa lanak egin edo kamarera moduan lan egiteko prest. **(Jakeline) 943 530803/676623843**

ESKAINZA

- Euskara irakaslea behar dut klase partikularrak jasotzeko. **696 96 40 69**
- Dendan lan egiteko pertsona behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa. **645 00 69 93**
- Etxeko lanak egiteko emakumea behar da. **647416313**
- DBH1. mailako partikularrak emateko pertsona bat behar dut. **626 23 75 70 (Ana)**
- Emakumea behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. **636 45 57 20**
- Kamareroa behar da. **943 12 12 62**
- Goi edo Erdi Mailako Ingeniari Elektrikoa behar da. Siemens Step 7 Automaten programazioan eta Visual Basic. Ingeles maila altua. 28-40 urte. **943121608 (Jose Ramon)**
- Neska euskalduna behar da taberna barran lan egiteko. Esperientziaduna. **670654921**
- Kamareroa behar da. Gizarte Segurantzza. **615 72 34 80**

ABISUAK

- 1956an jaiotako kinto bazkaria Mendaron. Urriak 1, Landa jatetxean. Izena emateko azken eguna irailak 25. 60 euro sartu Kutxako 2101 0054 13 0125574137 zenbakian. **943 756059**
- Udako trajea galdu nuen etxe batetik besterako trasladao egite-rakoan. Errosario kalean. **695711836/943740171**
- Txapak irekitzeko aparatua galdu nuen San Bartolome jaietan. Balio sentimental handia dauka. 200 euro ordainduko dizkiot aurkitu duenari. **669682990**
- Umearen urrezko pultsera galdu nuen irailaren 3an usua inguruan. Sare izena dauka idatzita. **615707138**
- Katu txiki bat oparitzen da. Mantsoa, lasaia eta maitagarria. **661225149**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Txapeldun!** Azkenean 10 urte! Ondo pasa! Familiakoen partez. Aupa Athletic, aupa Mikel!



▶ Zorionak **Milagros!** Mexiko eta Euskal Herria urrun dauden arren, izpirituz bat eginik gaude. Zure lagunak.



▶ **Ihintza**, zer dago hor goian? Koroa? Zorionak printzesa! Ikastolako laguntxoaren partez.



▶ Zorionak **Ibon** atzo 5 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Ana** atzo 9 urte egin zenituelako. Ondo pasa! Etxekoaren partez.



▶ Aupa etxeko **pirata!** Dagoeneko 6 urte potolo! Muxu handi bat etxekoaren eta bereziki, Unaxen partez.



▶ Gure **sorgintxoak** 5 urte bete ditu dagoeneko. Zorionak familiakoaren partez.



▶ Zorionak **Xiker** 5 urte egin dituzulako. Muxu bat guraso eta anaia Unaxen partez.



▶ Astelehenean 5 urte egingo dituzulako, zorionak ebeko guztien partez.



▶ Zorionak **Unai** astelehenean 8 urte egingo dituzulako. Elgoibarko familiakoaren eta bereziki, Imanolen partez.



▶ Zorionak **Irati Egafia**, domekan 4 urte egingo dituzulako. Etxeko sorgintxoari, ahizpa Alaitz eta etxekoaren partez.



▶ Zorionak **Asier** 6 urte egin dituzulako. Bazen garai! Familiakoaren partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Naiara** zure urtebetetzean. Iker eta familiako guztien partez.




▶ Zorionak **Janirel** zure 6. urtebetetzeak benetako ospakizuna merezi du. Kilometroko muxu bat zuretzako.



▶ Zorionak **Aitor eta Jon** zuen 1. urtebetetzean. Etxeko guztien partez.



▶ Zelako nagusiak! 5 eta 9 urte! hau zuen hilabetea da. Zorionak **Yeray eta Yaiza**. Guraso eta aiton-amonen partez.



▶ Harrapatu hau kate motzean! Ondo pasa zuen egunean eta txanpanik ez dadila falta.



▶ Zorionak **Lide eta Gorka** zuen urtebetetzean. Familiakoaren partez.



▶ Zorionak **pareja!** Dantzarako prest? guk behintzat ez daukagu geldirik egoteko asmorik! Ederki ospatuko dogu bixar! Muxu handi bat lagunen partez.



▶ Zorionak **bikote!** ondo pasa irailaren 23an. Familiakoaren partez muxu handi bana. Kontuz txanpanarekin.

▶ Zorionak amama **Lolital!** Ondo pasa zure egunean. Familiakoaren eta bereziki, Mikel eta Oihanen partez.



- GUARDIA** 24 ORDUZ
15 Etxeberria (*Santa Ana*)
16 Fernandez
(* Goizez Etxeberria - Erosario)
17 Fernandez
18 Bidasolo
19 Zabaleta
20 Etxeberria (*Erosario*)
21 Ibañez
22 Bidasolo
- KANPOKO FARMAZIAK**
IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38
- FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42
- ZABALETA**
Kalebaren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84
- * Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.



TXANKAKUA ELGOIBARKO MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEA

Elgoibarren, 2006ko irailaren 23an
ELGOIBARKO FORUEN PLAZAN

BABESLEAK:



Industria, Merkataritza eta Turismo Saila



Txankakuaren VI. Feria.

11:00etatik 14:00etara.

- Produktu / Zerbitzuen erakusketa eta salmenta.
- Haurrentzako parkea.
- TXU-TXU tren.
- Oparia

Irailaren 21, 22 eta 23an, elkarteko edozein den-detan egindako erosketen tiketa gordetzen baduzu (eros-tiketa bezala zigilatuta egon behar da) opari bat jasoko duzu plazan tiketa aurkeztean. (Opariak bukatu arte).

- TXANKAKUAren VISA TXARTELAren stand-a.

13:30ean

- 600 euro saritan.
- 100 euro-ko 6 sari zozketatuko dira, eta sariak erosketa-txekeak izango dira.

[15 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

2 urteik 6 urtera bitarteko haurrentzat eta hauen gurasoentzat (euria bada, hurrengo barixakura atzeratuko litzateke)
Plaza Handian

[17 DOMEKIA]

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian
Egitaraua: "Con el Alma" (V. Cartagena); "Un dia en Viena" (F. Von Suppé); "Autum leaves" (J. Kosma); "El barbrillo de Lavapiés" (F.A. Barbieri) eta "Moment for Morricone" (E. Morricone).

Zuzendaria: Jose Antonio Osoro

19:00 FOLKLORE IKUSKIZUNA

Taldeak: "Esencia Argentina" eta "Mexiko Lindo"
Plaza Handian

[22 BARIXAKUA]

20:00 18/98 PROZESUARI BURUZKO HITZALDIA

Herriko Antzokian
Hizlariak: Mariano Ferrer (kazetaria), Jone Goirizelaia (abokatua) eta Juan Mari Mendizabal (auziperatu elgoibartarra).
Moderatzailea: Hasier Etxeberria (kazetaria)

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«El Tigre y la nieve»
15, barixakua: 22:15
16, zapatua: 19:30-22:15
17, domekia: 19:30-22:15
18, astelehena: 21:30
«El Arco»
21, eguena: 22:15
«El Aura»
22, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Monster House»
15, barixakua: 19:30
16, zapatua: 17:00-19:30-22:15
17, domekia: 17:00-19:30-22:15
18, astelehena: 19:30-22:15
19, martitzena: 19:30-22:15
20, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Ciudad Sin Ley»
15, barixakua: 19:30
16, zapatua: 17:00-19:30
17, domekia: 17:00-19:30
18, astelehena: 19:30-22:15
19, martitzena: 19:30-22:15
20, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

«El Tigre y la nieve»



Zuzendaria: Roberto Benigni.
Antzezleak: Roberto Benigni, Nicoleta Braschi.

Atilio poeta eta unibertsitate irakaslea da atzerri-tarrentzako Erromako unibertsitatean. 2003. urtean gaude eta Irakeko gerra oraindik hasi gabe dagoen arren, giro nahasia nabaria da. Atilio bere munduan bizi da, poeten ahots zoragarriak bakarrik entzuten diren marfilezko dorre altu eta apartatuan biziko balitz moduan. Errealitatearekin duen lotura bakarra bere ametsetako emakumeari zor dion maitasuna da. Honek, ordea, ez du ezer jakin nahi Atilio ameslariak.

«El Arco»

Zuzendaria: Kim Ki-duk
Antzezleak: Jeon Sung-hwan, Han Yeo-reum

Arrantzale zahar bat itsasoaren erdian bizi da ume zela jaso zuen neskatxa batekin batera. Neskak 17 urte betetzeko irrikitan dago arrantzalea, ezkondu daitekeen gutxieneko adina baita. Bien bitartean, dotea prestatzen dihardu eta gogoko ez dituen senargaietaz babesten du. Defendatzeko daukan modu bakarra, geziak jaurtitzeko dituen arku misteriosu bat da. Misteriosua, etorkizuna iragaritzeko ere erabili daitekeelako.

Atzera hegira



1956. urteko erretratu zahar hau **Maite Vallejo**k laga digu. Argazkiko neska apain eta doctore hauek Donostiara joan ziren egun pasa eta Igeldo mendian atera zuten argazkia. Hiriburura trenez joan ostean, lagun arteko giro ederrean pasa zutela eguna azaldu digute. Argazkian ageri duten irrifarrak hala erakusten du. Horrelako txangoak, garai hartan, ez zirela eguneroko kontua izaten ere gaineratu digute.

Goian, ezkerretik eskumara: **Maria Luisa Urrutia eta Arantza Iriondo**. Behean, eserita, ezkerretik hasita: **Milagros Totorika, Maite Vallejo eta Mari Paz Gabilondo**.




ESKERTZA

2006ko irailaren 11n hil zen
Jesus Galarraga Barrenetxearen sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2006ko irailaren 9an hil zen
Josefa Gozalo Rubiaren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



aprende euskara de la manó de *aek*

- Euskaraz ulertu eta hitz egiteko klaseak.
- **EGA:** astean 2 egunetan (estudiantoetoi bogira)
- **Perfilak:** Osakidetza, Irakaskuntza, IVAP
- **Bereziak:**
 - Inmigrateentzat
 - Partikularrak (enpresari, abokatu, dentista...)



Nire emoztea euskalduno da eta gure semea ere bai. Horregatik ari naiz neuz ere eta merezi du.

JOSE

Udalaren laguntzaz:

- Langabetuek, gurasoek eta ikasleek matrikula erdia
- Beka sistema

Elgoibarko *aek* euskaltegia
Plaza Txikia, 3 - Tel.: 943 74 13 32
elgoibar@aeknet.net

aek

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezue!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behe
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

ELGOIBARKO 18/98 +... TALDEA



HITZALDIA



Hizlariak:

- **Marlano Ferrer** (Kazetaria).
- **Jone Goirizelaia** (Abokatu).
- **Juan Mari Mendizabal** (Auzipetu elgoibartarra).

Moderatzailea:

- **Hasier Etxeberria** (Kazetari eta idazlea).

Bertsolaria: **Uxue Alberdi**.

Zurtarri txalaparta taldea.

Eguna:

- Irailaren 22an.(ostirala)

Ordua:

- Arratsaldeko 20:30ean.

Tokia:

- Herriko Antzokia (Elgoibar).
(Pedro Muguruza Etorb, 7).